

DOCENTIAZ TAILERRA 2024 (Formakuntza kurtsoa)

Antolakuntza: Medikuntza eta Erizaintzako Fakultatea

Kurtxoaren Fitxa

Kurtxoaren izenburua : **MINTEGI PRAKTIKOA DOCENTIAZ PROGRAMAN PARTE HARTZEKO**

Iraupena: 4 ordu

Ordutegia: 9.30-13:30

Proposatutako datak: 2024ko urtarrilaren 22a

Lekua: S1 gela

Parte-hartzaileak: Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasleak
Gehienezko parte-hartzaile kopurua: 20

Irakasleak: IEUBen DOCENTIAZ programan ebaluatzaile izan diren Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasleak

- Aitziber Mendiguren, Farmakologia Saileko irakasle agregatua
- Miren Basaras, Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saileko irakasle titularra

IKASTAROAREN HELBURUA

Ikastaroaren helburu nagusia fakultateko irakasleei autotxostena egiten laguntzeada, hori baita irakaskuntzaren kalitatea ebaluatzeko DOCENTIAZ programan parte hartzeko baldintzetako bat. Prestakuntza-jarduera hori antolatuz, ikastetxeak UNIBASQen gomendioetako bati erantzun nahi dio. Gomendio horiek ikastetxeko titulazioen

jarraipen-txostenetan jasota daude, eta programan parte hartu duten irakasleen proportzioa hobetzea komeni dela adierazten dute.

Ikastaroa tailer formatuan egingo da, irakasleek beren txostenarekin lan egin ahal izan dezaten; horrela, beren irakasgaiari edo garapen profesionalari buruzko zalantzak argitu eta arazo espezifikoa konpondu ahal izango dituzte, ebaluazio-protokolo publikoaren laguntzarekin. Horregatik, **irakasleak ematen duten irakasgaiaren gidarekin joan behar dira saiora. Zeregin hori, ikasleen gogobetetze-inkestak eta curriculum vitae aurkeztuko dituzte.** Tailerra ez da eskola magistral gisa emango; aitzitik, prestatzaileek ebaluazio publikorako protokoloa proiektatuko dute, eta parte-hartzaile bakoitzak protokoloaren dimentsioei buruz dituen zalantzak argituko ditu.

IKASTAROAREN PROGRAMA

- DOCENTIAZ programaren aurkezpena eta egitura: 4 ebaluazio-dimentsioak.
- Tailerreko parte-hartzaile bakoitzaren banakako lana: parte-hartzaile bakoitzak, ebaluazio-protokoloarekin batera, ikaslearen gida, zeregin propioa, inkestak eta curriculum vitae berrikusiko ditu, DOCENTIAZ programaren dimentsioetan oinarrituta.
- Zalantzak argitzea